

**BERGARAKO UDALEKO INFORMATIKAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BAT  
KONTRATATZEKO ETA LAN-POLTSA OSATZEKO DEIALDIA ETA  
HAUTAKETA-PROZESUA**

**1. Deialdiaren helburua**

Deialdi honen xedea da, lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez, Informatikako laguntzailearen plaza aldi baterako betetzea.

Aldi baterako funtzionarioaren izendapena egingo zaio, egungo plazaren titularren murrizketaren iraupenari lotuta.

Halaber, deialdiaren xedea da, baita ere, sortzen diren aldi baterako beharrei aurre egiteko lan-poltsa bat osatzea.

**2. Eginkizunak**

Ardura orokorrak

Udaleko sare eta informazio sistemen funtzionamendu egokia bermatu, egunerokotasunak sortutako arazoak konpondu eta ahal den heinean horiei aurrekonponbidea ematen saiatu.

Eginkizun nagusiak:

1. Erabiltzaileen kontsulta eta erreklamazioei erantzun: diagnosia egin eta hardware zein softwareetako gorabeherak konpondu eta erabiltzaileei erabiltzen dituzten aplikazioetan laguntza eskaini.
2. Udalaren ekipo informatikoen zein sareko komunikazio-sistemen funtzionamendu ona gainbegiratzea, zerbitzariak eta mezuak aztertuta.
3. Udalak kontratatu ditzakeen kanpoko laguntza teknikoak ahal den neurrian ekidin, eta ezinbestekoa denean, horiek gainbegiratu gorabeherak ekiditeko. Gorabehera edo matxuraren bat egonez gero, konponbiderik egokiena bilatu.
4. Udalean errepikatzen diren prozesuak identifikatu eta ahal den heinean erraztu, sinplifikatu eta automatizatu.
5. Erabiltzaileentzat beharrezkoa eta egokia aurreikusten den formakuntza prestatu eta dagozkion formakuntza-saioak antolatu.
6. Informazioaren segurtasunari dagozkion neurriak hartu:
  - a. Active Directory-ko gpo-ak (segurtasun politikak) modu egokian funtzionatzen dutela bermatu. Horretarako, bash, batch, vbs edo mota bereko script-ak kudeatu.
  - b. Ahal den neurrian modu proaktiboan jardun; horretarako, segurtasun-tresna guztiak aztertu eta ezarri.
7. Eguneratuta egotea teknika berrietan, tresna informatikoetan, ekipoetan, etab.
8. Baliabide zein teknika informatiko berriak ezartzea eta prozesuaren finkapenaz eta kontrolaz arduratzea. Hau da, aplikazio informatikoak hobetzeko planen barruan,

proiektuak eta proposamenak egitea. Horretarako mantentze-lan prebentiboak egingo dira zerbitzua hobetzeko.

9. Udalak dituen zerbitzari fisikoen zein birtualen mantentze-lanak burutu eta horien funtzionamendu egokia bermatu. Horretarako, zerbitzarien zerbitzuak diren DNS, DHCP, Active Directory, IIS, Apache, etab. kudeatuko dira.
10. Sistema eragileak kudeatu eta mantendu; hala nola, Windows Server 2016, Windows Server 2019, Microsoft Windows 10 Proffesional, Microsoft Windows 10 Proffesional, Linux (Centos 6).
11. Sistema eragileek dituzten datu-baseak kudeatu eta mantendu; hala nola, SQL Server eta MYSQL, alegia.
12. WSUS sistemak ezartzen dituen eguneraketez arduratu eta funtzionamendu egokiaz arduratu.
13. Udalean dagoen informazio-teknologiaren menpekotasunaren hazkundeari aurre egiteko, Informatika Saileko arduradunarekin bat, beharrak aztertu eta dimentsionatu:
  - a. Beharrezko migrazioak burutu.
  - b. Zerbitzari birtualetan, VMWare kudeatu eta beharrezkoak diren aldaketen ikerketa-lanak burutu.
  - c. Sare-mailan, VLAN (sare birtuala) zein VOiP (ahotsa) sareak kudeatu eta TCP/IP sare-konfigurazioaren funtzionamendu egokia bermatu.
  - d. Hardware mailan, sareko elektronika berriaren beharrak aztertu.
14. IZFEko aplikazioetan zein horien erabiltzaileekin egon daitezkeen gorabeherak kudeatzea eta erabilpen egokia bermatu.
15. Sarearen funtzionamendu egokia begiratu eta bermatu (datuak eta ahotsa) udal erakundeetan.
16. Udalaren espedienteak kudeatzeko sistema informatikoaren eginbeharrak burutu.
17. Udalaren gardentasunaren esparruaren barruan, sistema kudeatu eta mantentze teknikoaz arduratu.
18. Informatika teknikariaren faltan burutu beharreko oinarrizko eginbeharrak.
19. Udalaren informazio guztiaren segurtasun kopiak ongi egin direla konprobatu eta ziurtatu Veeam Backups programaren bitartez; bai egunero burutzen direnak, bai asteroko kopiak.
20. Segurtasun-sistema konprobatu, antibirusa bereziki.

Lanpostuari lotutako jarduerak honako plataforma teknologiko hauen gainean egiten dira udalean:

• Komunikazioak:

- o Sareko elektronika: Cisco eta Ubiquiti
- o Segurtasun-sistemak (FW): Watchguard

• Datuen Prozesamendurako Zentroaren (CPD) azpiegitura:

- o Hardware ekipamendua: IBM, Lenovo eta Synology
- o Birtualizazio-sistema: VMware
- o Sistema eragileak: Microsoft Windows Server

- o Backup: Veeam Backup & Replication
- o Antibirus eta antimalware zerbitzuak: Eset

• Lanpostuak:

- o Hardware ekipamendua: Dell, HP eta Asus
- o Sistema eragileak: Windows 10 eta 11 Profesionala
- o Bulegotika-paketea: Microsoft Office.

### **3. Izangaiek bete beharreko baldintzak**

Hauta-probetan parte hartu nahi duen pertsona orok ondoren adierazitako betekizun orokorrak bete beharko ditu:

a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea, urriaren 30ean onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber, parte hartu ahal izango dute espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) LHII edo parekidea den titulua izatea, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izana.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeek zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

f) 3. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.

g) Antzeko lanpostu batean gutxienez urte bateko lan esperientzia izatea.

h) Deialdian parte hartzeko Bergarako Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana. Azterketa egiteko tasa (10,35 euro) ordaintzeari dagokionean, beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigor adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia.

Transferentzia-agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korrante honetan:

KUTXABANK

ES94 2095 5070 79 1061075569

Parte hartzeko, a), b), c), f), g), eta h) ataletan jasotako baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira.

Hautaketa-prozesuaren amaieran behin betiko zerrendan aukeratutzat agertzen diren izangaiek agiri originalak aurkeztuko dituzte eta baita beste guztiak ere zortzigarren eta bederatzigarren oinarriari jarraituz.

#### **4. Eskaerak**

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira, **2023ko urtarrilaren 27ra** arteko epean.

Eredu ofizial hori eskuratu ahal izango da Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Zerbitzuan (BAZ bulegoa, 8:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera) eta Udalaren webgunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) lan eskaintzen atalean.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.
- Ezinduei gordetako modalitatean parte hartzeko dagozkien agiriak ere aurkeztuko dira.
- Kasua hala bada, 3. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskabideengatik tasa ordaindu izanaren agiria eta, hala badagokio, hobaria justifikatzen duen dokumentazioa ere.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu edo adierazi ez diren merezimenduak ezta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin eta instantziak aurkezteko epean egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokionean:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

- Egindako zerbitzuak ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agiriaren bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

- Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.
- Lan kontratua eta Gizarte Segurantzak luzatutako bizitza laborala.

2.- Prestakuntza. Erakunde ofizialek emandako edo haiek homologatutakoak diren ikastaroak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira:

- Presentzialki B@Zean (Bergararren Arreta Zerbitzuan; helbidea: San Martin plaza, 1. zk.a, 20570 Bergara) .
- Telematikoki, Bergarako Udaleko web-orrian: <https://www.bergara.eus/erregistroa>

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (*urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena*).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo oinarrietan adierazitakori jarraituz behar besteko informazioa ez duten agiriak.

Interesatuak agirien inguruko akats edo hutsuneren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du epaimahaiak emandako aurkezte-epea amaitu artean; behin epe hori bukatutakoan, ez da onartuko.

#### Datu pertsonalak babestea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazioa libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legimitatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharrak baten baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legea aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduarekin lotutako edozein afera dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: [dbo@bergara.eus](mailto:dbo@bergara.eus).

## **5. Izangaien onarpena**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko, parte hartu ahal izateko eskatutako betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaiak eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere ardurapean egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betetzen dituela egiaztatutzat aitortzen zaionik. Beraz, Bergarako Udalak eskubidea du izangaia hautapen-prozesutik kanpo uzteko edozein unetan, izangaiak eskatzen zaizkion betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko da alkatearen dekretu bidez. Zerrenda hori Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta webgunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) argitaratuko da.

Ondoren, hamar (10) eguneko epea egongo da zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko.

Inork ere ezereen erreklamaziorik aurkeztu ez edo dei-egileak ezereen hutsik aurkitu ez badu, behin-behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da, eta halaxe jakinaraziko da, Bergarako Udalaren ebazpen baten bidez. Ebazpen hori, Bergarako Udaleko iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da. Erreklamaziorik izaten bada, beste ebazpen baten bitartez onartu edo baztertuko dira, eta, era berean, behin betiko zerrenda ere onartuko da. Zerrenda hori aurreko paragrafoan esanda bezala argitaratuko da.

Behin betiko baztertutako izangaiek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu diezaiokete ebazpena hartu duen Bergarako Udalari, ebazpena argitaratu eta hilabete bat igaro baino lehen, edota zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo eta han aurkeztu errekurtsioa, bi hilabete baino lehen.

## **6. Epaimahai kalifikatzailea**

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta gutxienez beste hiru kidek osatuko dute eta Alkateak izendatuko ditu. Epaimahaia osatzen duten titularren zerrenda udaleko iragarki taula eta web-orrian argitaratuko da.

Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

Mahaikideek ez dute esku hartuko, edo uko egin ahalko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa onartzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24 artikulutan jasota dauden egoeretako bat gertatzen denean.

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluen arabera jardungo du. Nolanahi ere, epaimahaikideak lehendakariaren aginduz bilduko dira eta bilera hori hautatze probak hasi baino lehenago egin behar da, behar adina denborarekin. Bilera baliagarria izan dadin, nahitaezkoa da Epaimahaiburua eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez, epaimahaikideen erdia bileran izatea.

Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu eta ariketen ordena aldatu eta bat baino gehiago egun batean egitea ere erabaki ahalko du.

Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

## **7. Oposizioaldia**

Deialdi bakarra egingo da. Izangaiek NANA eraman beharko dute probetara, identifikatzen.

Oposizioa ariketen hurrenkera ondorengoa izango da; hala ere, epaimahaiak ahalmena du hurrenkera hori aldatzeko, edo egun berean egitea erabakitzeko, hautaketa prozesuaren garapen egokia lortzeko.

### **— Lehengo ariketa: Teoriko-praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.**

I. Eranskinetako gaiei edo/eta lanpostu honen funtzioei buruzko galderei erantzutean datza, garatzekoak izan edo/eta erantzun alternatiboko galdetegia izan (epaimahaiaren erabakiaren arabera).

Halaber idatziz garatu beharko dira kasu praktikoa eta/edo teoriko-praktikoa bat edo batzuk, gaiei eta/edo lanpostuaren egitekoei lotutakoak.

Epaimahaiak proposatuko ditu probak, egin baino lehentxeago, eta hark jarritako iraupena izango dute.

Gehienez ere **40 punturekin** baloratuko da, eta, gainditzeko, gutxienez 20 puntu edo/eta ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren erdia atera beharko dira.

Epaimahaiak jakitera emango du aurrez zenbat puntu dituen bakoitzak.

### **— Bigarren ariketa: Euskarako proba.**

Deialdiko 3. oinarriko f) atalean eskatzen den euskara-maila egiaztatzeko agiririk aurkeztu ez bada, eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion frogaren bitartez. Froga egiteko eguna Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratuko da.

Azterketa honek ez du inolako balio ofizialik izango 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Lanpostu honen hautaketa-prozesuan parte hartzeko besterik ez du balioko, eta lortutako emaitzen arabera, hautagaiak "Gai/Ez gai" gisa sailkatuko dira.

Ariketa hau ez dute egin beharko 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea den titulu baten jabeek.

Hizkuntza-eskakizunekin baliozkotutako tituluak eta ziurtagiriak honako arau hauetan jasotzen dira: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa), azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak baliozkotu eta horiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentziazko Marko Komuneko mailekin parekatzeari buruzkoa) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (euskaraz eginiko ikasketa ofizialak aitortu eta euskarazko hizkuntza titulu eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzeko salbuesteari buruzkoa); eta era berean, gai hau arautzen duen geroko edozein arautan ere.

— Hirugarren ariketa: Trebetasun edota nortasun probak, lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba.

Derrigorrezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerakoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzea bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da. Probek elkarriketa ere izan dezakete.

Ariketa honi **35 puntu** emango zaizkio gehienez eta epaimahaiak erabakiko du zenbat puntu atera behar diren gaingitu eta aurrera jarraitzeko.

## **8. Lehiaketa**

Lehiaketa-aldia ez da baztertzaila izango, eta aldi horretan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizioaldiko probak gaingitzeko.

Eskaera-orrian adierazitako eta behar bezala egiaztatutako merituen bakarrik balioetsiko dira. Eskaerak aurkezteko azken egunera arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan.

Lehiaketaldian gehienez ere **25 puntu** lortu ahal izango dira.

a) Lan-eskarmentua (Inoren kontura egindakoa bakarrik)/ Lana edo zerbitzuen esperientzia (10 puntu gehienez)

1.- Toki administrazio batean edo enpresa pribatuak kontratatua baina toki-administrazio batean lanpostuaren funtzioekin egindako informatika-laguntzailearen lana:

- 0,35 puntu hileko, eta gehienez 10 puntu arte.

2.- Lanpostuaren eginkizun batzuekin izandako lan-esperientzia:

- 0,12 puntu hileko, eta gehienez 5 puntu arte.

Nolanahi ere, esperientzia ziurtatu egin beharko da instituzioak edo enpresak egindako ziurtagiri batekin, bertan egindako lanen eta arduren inguruko informazioa jasoko da.

Administrazio publiko batean emandako zerbitzuak egiaztatzeko, ziurtagiriak (originalak edo kopia konpultsatutak) aurkeztu beharko dira; zerbitzu horiek eman diren Administrazioko funtzionario eskudunak egindako ziurtagiria izan beharko du.

Esparru pribatuan egindako lanaren kasuan, lan-kontratua.

Kasu guztietan Gizarte Segurantzak ematen duen lan-bizitzaren agiria aurkeztu beharko da.

**b) Prestakuntza osagarria (15 puntu gehienez)**

Lanpostuaren ezagutza espezifikoak garatzera bideratutako prestakuntza espezifikoak baloratuko da, hala nola sistema eragileak eta zerbitzariak administratzea, komunikazioak administratzea edo lanpostuak administratzea.

Baloratuko dira:

- 1.- Udalean erabilitako teknologia batean ziurtagiriak: 5 puntu ziurtagiriko izango ditu, eta gehienez 10 puntu.
- 2.- LHII informatika alorrean izatea: 5 puntu.
- 3.- Beste prestakuntza/ikastaroak. Lanpostuaren eginkizunak garatzen diren teknologiekin lotutako prestakuntza bakarrik baloratuko da, hau da, udalaren plataforma teknologikoari erreferentzia eginez lehenengo oinarrian jaso direnak.

Horretarako, beharrezkoa izango da prestakuntzaren xedea eta iraupena zehazten dituen bertaratze ziurtagiria edota diploma aurkeztea.

Baloratuko den prestakuntzari dagokionean, honako hauek izango dira kontuan:

- 2020tik aurrera egindakoak baloratuko dira.
- 0,125 puntu prestakuntza-ordu bakoitzeko.
- Gehienez 3 puntu emango dira ikastaroko eta teknologia edo gai bakoitzeko formazioengatik.
- Ez dira hartuko kontuan ziurtagiri bat lortzea ekarri duten prestakuntzak baldin eta ziurtagiri hori jada 1. paragrafoan baloratuta badago.

**9. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena**

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa zehazteko, bi faseetan lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Berdinketak egonez gero, honako hurrenkerari jarraituz erabakiko da lehentasuna:

- a) Bete behar den lanpostuarekin erlazionatuta egindako lanean esperientzia gehien izatea.
- b) Oposizioaldiko hirugarren ariketan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) LHII Informatika Formazioa izatea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan eta udaleko web orrian agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta, puntu gehienekotik gutxienekeira.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako izendapenerako proposamenarekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe gelditu dela aldarrika dezake.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitaratutakoan jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko izendapena sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkeztu ez baditu, edo izendapena sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

### **10. Lan-poltsa**

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, udalean informatika laguntzaile edo teknikari plazari dagokionean aldi baterako izendapen-premiei erantzuteko edo udaleko profil horrekin egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du –indarrean jartzen denetik kontatzen hasita–, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Udalak lan-poltsen funtzionamendurako indarrean dituen arau eta erabakiak aplikatuko dira. Halaber, aldi baterako izaerarekin kontratatutak izateko legezko mugak aplikatuko dira.

### **11. Deialdiak eta jakinarazpenak**

Hautaketa-prozesuko probak egiteko deialdiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko jakinarazpen eta komunikazio guztiak ere, Bergarako Udaletxeko Iragarki Taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuz emango dira jakitera.

### **12. Gorabeherak eta inpuñazioak**

Deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren egintza administratibo ororen kontra, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen kontra ere, jo ahal izango dute interesatuek, urriaren 1eko 39/2015 Legean eta martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan eta moduz.

## GAITEGIA

1. Udal antolakuntza: udal organoak. Udal eskumenak.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratu motak (12. artikulutik 18. artikulura); Kontratuaren aldeak (61. artikulutik 63. artikulura); arau orokorrak (99. artikulutik 102. artikulura).
3. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratazio espedientea (116. artikulutik 124. artikulura); adjudikazioa (131. artikulutik 141. artikulura); eta formalizazioa (150. artikulutik 154. artikulura).
4. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa: 4. artikulua: 1 eta 2 zenbakiak
5. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: Tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna.
6. Ordenagailuen arkitektura: prozesatzeko unitate zentrala (osagaiak, modeloak), memoria (ezaugarriak, motak), disko gogorrak, konexioak.
7. Informatikako lan-estazio baten sistema periferikoak.
8. Windows Server sistema eragileak. Ezaugarriak eta ezagutza orokorrak.
9. Windows 10 eta 11 Profesional sistema eragileak. Ezaugarriak eta ezagutza orokorrak.
10. LINUX sistema eragilea. Ezaugarriak eta ezagutza orokorrak.
11. Sistema eragileak gailu mugikorretan.
12. Active Directory. Erabiltzaileak, antolaketa, politikak, GPOak.
13. Komunikazioak. Protokoloak eta sareko zerbitzuak.
14. Segurtasun perimetrala (Suebakia). Sarbide-kontrola, segurtasun-zerbitzuak, sare pribatuak (VPN).
15. Segurtasun kopiak. Kopiatu eta berreskuratu Veeam backup erabiliz.
16. Posta elektronikoa. Microsoft Exchange posta korporatiboen erabilera eta kudeaketa.
17. Erabiltzaileei laguntzea: Arazoak konpontzea. Azken erabilerako zereginen autozerbitzua.
18. Birusak eta malwarea: zer diren, motak, eragina, birusen aurkako sistemak.
19. Microsoft etxeko softwarea eta ofimatika-paketeak. Instalazioa eta konfigurazioa.
20. Segurtasun informatikoa: Datuen babesa: Baimenak, sarbide-gakoak, zifratua.

**CONVOCATORIA Y PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN DE UN/A  
TÉCNICO/A AUXILIAR DE INFORMÁTICA DEL AYUNTAMIENTO DE BERGARA, CON  
CREACIÓN DE BOLSA DE TRABAJO**

**1. Objeto de la convocatoria**

Constituye objeto de la presente convocatoria la provisión temporal, mediante sistema de concurso-oposición libre, de la plaza de auxiliar de Informática.

Se procederá a su nombramiento como funcionario/a temporal en relación con la duración de la reducción de la plaza de la actual titular.

Asimismo, la convocatoria tiene por objeto la creación de una bolsa de trabajo para atender las necesidades temporales que se presenten.

**2. Funciones**

Responsabilidades generales

Garantizar el correcto funcionamiento de las redes y sistemas de información municipales, resolver las incidencias generadas en el día a día y, en la medida de lo posible, intentar adoptar medidas preventivas al respecto.

Funciones principales:

1. Dar respuesta a las consultas o reclamaciones de las personas usuarias: realizar el diagnóstico, resolver incidencias de hardware y software, y prestar ayuda a las personas usuarias en el uso de las aplicaciones.
2. Supervisar el correcto funcionamiento de los equipos informáticos y de los sistemas de comunicación municipales, mediante el análisis de los servidores y mensajes.
3. Evitar en lo posible la contratación de asistencia técnica externa y, cuando sea imprescindible, supervisarla a fin de evitar incidencias. En caso de surgir incidencias o averías, buscar la solución más adecuada.
4. Identificar los procesos que se repitan con mayor frecuencia y, en la medida de lo posible, facilitarlos, simplificarlos y automatizarlos.
5. Diseñar la formación necesaria y adecuada para las personas usuarias y organizar las sesiones formativas correspondientes.
6. Adoptar medidas para la seguridad de la información.
  - a. Garantizar el correcto funcionamiento de los GPOs de Active Directory (políticas de seguridad), gestionando para ello batch, vbs o scripts del mismo tipo.
  - b. En la medida de lo posible, mantener una actitud proactiva, analizando y utilizando para ello todas las herramientas de seguridad.
7. Mantenerse actualizado/a en nuevas tecnologías, herramientas informáticas, equipos, etc.

8. Implantar nuevos recursos y técnicas informáticas, responsabilizándose del establecimiento y control del proceso. Es decir, dentro del plan de mejora de las aplicaciones informáticas, realizar proyectos y propuestas. Para ello, se realizarán tareas de mantenimiento preventivas a fin de mejorar el servicio.
9. Realizar el mantenimiento y garantizar el correcto funcionamiento de los servidores municipales, tanto físicos como virtuales. Para ello se gestionarán los servicios de los servidores DNS, DHCP, Active Directory, IIS, Apache, etc.
10. Gestionar y mantener las bases de datos de los sistemas operativos Windows Server 2008, Windows Server 2012, Microsoft Windows 7 Profesional, Linux (Centos 6).
11. Gestionar y mantener las bases de datos de los sistemas operativos SQL, Server y MYSQL.
12. Responsabilizarse de las actualizaciones y del correcto funcionamiento del sistema WSUS.
13. Junto con el responsable de Informática, analizar y dimensionar las necesidades, a fin de hacer frente al aumento de la dependencia en el ayuntamiento respecto a las tecnologías de la información:
  - a. Realizar las migraciones precisas.
  - b. En los servidores virtuales, gestionar VMWare e investigar sobre las modificaciones necesarias.
